

# Getxo >MEETING<



**Otsailak 22**

**Zer ikasi dugu saioan egon zirenen Instagrameko profilak berrikusiz?  
Labur-labur azalduko dizugu.**

Galdera garrantzitsu bat genuen abiapuntu: Zure Instagrameko kontuak benetan islatzen al du adierazi nahi duzuna?

Kasuz kasu begiratuta, honako gai hauetaz jabetu gara:

- Lokal bat jendearentzat irekita baduzu, ziurtatu zure profileko bioan posta-helbidea eta telefonoa idazten dituzula. Bestela, online negozio hutsaren antza izango du.
- Ez eman ziurtzat jendeak badakiela zertan zabiltzan. Azaldu, errepikakorra iruditzen bazaizu ere.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica  
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140  
[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



- Erabili nabarmenduak zure zerbitzuak erakusteko. Eta, gainera, produktuarekin zerikusia duen zerbait gehi dezakezu bezeroak jasotakoan.
- Pentsatu beste pertsona batzuen edukia partekatzea, edo elkarlaneko postak egitea beste marka osagarri batekin. Eragina areagotuko duzu.
- Ziurtatu ikusarazten duzula zein den zure espezialitatea. Eta hainbat pertsonarengana zuzentzen bazara, jar itzazu ikusgarri feed-ean pertsona guztiak ordezkaturata senti daitezten. Adibidez, hurrekin eta helduekin lan egiten baduzu, baina gero argazkietan umeak soilik agertzen badira, jendeak haurrentzako jardueren barruan kokatuko zaitu eta helduek beste leku batera alde egingo dute.

Ikusten duzunez, begi-bistakoa dena agerian uztean datza dena. Horregatik da hain garrantzitsua informazioa alderatzea egiten ari zarena oso ondo ezagutzen ez duen jendearekin. Ikusteko ea kanpoan uzten ari zaren munduari erakutsi nahi diozun negozioaren alderdi garrantzitsuren bat.

Erabilgarria izan zaizulakoan... Sareetan ikusiko dugu elkar... eta hurrengo Getxo MEETINGen!

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica  
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140  
[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

